



Osakidetza

EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA ENKARTERRI CRUCES



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Endokrinologia eta Nutrizio Zerbitzua

Nola jokatu HIPOGLUZEMIA gertatuz gero?

Hemen deskargatu
dezakezu dokumentua



Odoleko azukre-maila **70 mg/dl azpitik** jaitea. Intsulina eta/edo ahotiko antidiabetikoren baten tratamendua duten pertsonak gehien izan ohi duten konplikazio akutua da hipogluzemia.

SINTOMAK



DARDAR



PULTSU
AZKARRA



ZORABIOA/B
URUKO



AHULTAS
UNA/NEKE



IZERDIA



IKUSMEN
LAUSOA



GOSEA



SUMINKORTASUNA

KAUSAK

- Intsulina gehiegi hartzea edo ahotiko antidiabetikoren baten gehiegizko dosia hartzea.
- Elikagai-kopurua atzeratu edo murriztea.
- Ohiko ariketa fisikoa areagotzea.
- Alkohol gehiegi edatea.

Tratamendua

HIPOGLUZEMIA ARINA: norberak kendu dezake..

15

ZENBAKIAREN
ARAUA

1. URRATSA

Xurgapen azkarreko 15 gramo azukre hartu




2. URRATSA

15 minutu itxaron eta glukemia kapilarra egin
(ez neurtu sentsorearekin)



15 minutu
itxaron





Glukemia 70 mg/dl-tik
beherakoa bada,
1. urratsa errepikatu

Glukemia 70 mg/dl-tik
gorakoa bada,
3. urratsa errepikatu


3. URRATSA

Eragin geldoko karbohidratoa hartu
(bazkaldu arte ordubete baino gehiago falta bada)



***Jatordu baten aurretik gertatzen baldin bada hipogluzemia, lehenik eta behin hipogluzemia kenduko dugu eta arazoa konpondu ondoren has gaitzke jaten. Jan aurretik hartu behar da intsulina, itxaroteko tarterik hartu barik.**

Hemen duzu bideoa eskuragarri:
<https://youtu.be/Hc4-OJdIozA>



NOLA JOKATU HIPOGLUZEMIA LARRIA GERTATUZ GERO?

(sintoma neurologikoak direla-eta, norberak ezin dezake hipogluzemia kendu eta kanpoko laguntza behar du)



1. urratsa: Glukagoia eman

LARRUAZALPEKO GLUKAGOIA



Leku berdinetan eman behar da (abdomenean, besoetan, izterretan eta ipurmasaileko muskuluetan).


1 Estalkiak kendu.



2 Hautsa eta likidoa.



3 Likidoa atera eta sartu.




SUDURRETIKO GLUKAGOIA



1 Gailua eutsi sudurrera sartu aurretik, enboloa sakatu barik.



2 Sudur-hobietako batean sartu.



3 Enboloa sakatu marra berdea ez ikusi arte.

2. urratsa: Pertsona alboz jarri eta 112 zenbakira deitu.



3. urratsa: Konortea berreskuratu ondoren, 15 zenbakiaren araua bete.



*Ziurtatu senide eta lagunek badakitela glukagoia injektatzen.

***Laguntza behar duen pertsonak alkohola edan badu, ez eman glukagoirik.**
Bere kordean badago, azukrea eman.

GLUKAGOIA KONTSERBATZEA (ZAIN BARNETIK NAHIZ MUSKULU BARNETIK JARTZEKO):

- Hozkailuan (2-8°C), produktua iraungi arte.
- Hozkailutik kanpo, hamazortzi hilabetez.